ASTEKARIA - 2008ko urtarrilaren 18an - XII. urtea - Usurbil, 308. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua!!



Carlos Jimenez, argazkizale amorratua



# Atez ateko zabor bilketa egingo da udatik aurrera


OTEGI
Sagardotegia
Urte guztian irekita Astelehena ezik
Solla enea Baserria
Zabaleta auzoa • Lasarte-Oria
Tel.: 943 365 029


URDAIRA
Sagardotegia
Urtarrilaren 18an
irekitzen dugu
Aginaga, Tel.: 943 37 26 91
Egunero irekita, igande gauetan izan ezik


Urtinea Lorategia
Frutarbolak
aldatzeko sasoia
Aukera zabala:
* Bertoko sagar barietateak
* Udareondoak, gereziondoak, aranondoak, intxaurrondoak, pikondoak, kakiak, kiwiak...
* fruitu txikidun zuhaixkak: mugurdiak, anderemahatsak, feijoak...
San Esteban auzoa
☎ 943 362 255 Faxa: 943 366 054
E-mail: urtinea@euskalnet.net

Albistea iruditan !!

# Zerrendak, azkenean, jendaurrean

Olarriondon eta Ugartondon eraikiko diren babes ofizialeko etxebizitzak 168 izango dira. Iazko udaberrian izena emateko epea zabaldu zenean, 420 eskari jaso ziren. Eskaera horietatik 362 izan dira onartuak eta 58 baztertuak. Izena eman zuen eskatzaile bakoitzak aste honetan bertan jasoko du jakinarazpena. Hortik aurrera, alegazioak egiteko hamar eguneko tartea izango da. Udal idazkaritzatik esan digutenez, alegazioak egiteko epeak urtarrilaren 14tik 24era iraungo du. Etxebizitzen zozketa, aldiz, uda aurretik egin nahi du udal gobernuak.



URTARRILAREN 24AN AMAITUKO DA ALEGAZIOAK AURKEZTEKO EPEA.

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

HIRI HONDAKINEN TRATAMENDUA ____ 5. OR.
CARLOS JIMENEZ ARGAZKILARIA ____ 10. OR.
SAHARAREN ALDEKO KANPAINA ____ 12. OR.
SANTUENEKO JAIOTZA LEHIAKETA ____ 13. OR.
DENBORAPASEN TARTEA ____ 14. OR.
JUDO ETA PILOTA ALBISTEAK ____ 15. OR.
"OGIA ETA ARROSAK" FILMA SUTEGIN ____ 17. OR.

Usurbilgo Udala

ARE, ARE !!!

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



NEREA ZINKUNEGI

# Beste zereginik ez eta…

Ausartu dira berriro ere, zeregin hobeagorik ez eta urrez jositako obispo nahiz kardinalak familiaren inguruko hausnarketa erretorikoak egin dituzte telebista kameren aurrean, zenbait herritarren aurrean, punta puntako teknologia erabiliz, mezua ozen eta garbi entzun dadin; familia eredu bakarra hobesten du elizak, barkatu, onartzen du elizak; tradizionala, betikoa, heterosexuala eta ugaltzeko esperantza eta betebeharra duena.

Nola ez?!! Elizak sortutako instituzioa da familia, gure sistemaren oinarria eta funtsa, eta urrez jositako jamonyor koloreko gizon horiek dira gaian adituak, nahiz eta predikatzen dutena inoiz gauzatu ez izan.

Imajinatu nezake duela mila eta piku edo bi mila eta piku urte arte nola herrixketan biltzen zen jendea, klanetan, koadrilatan, abizenik gabe, lehengusurik gabe, herentzia liskarrik gabe… baina kristautasuna sortu zen eta ondoren eliza, eta eliza aginduak ematen hasi zen, eta gizakia gizaki bada familiatan biltzeko agindua emango zuen. Eta familia hitza bera kristautasunak asmatutako, ideiatutako, kontzeptua besterik ez dela deritzot. Inoiz diseinatu den instituziorik iraunkorrena eta emankorrena, okzidentean noski, gure herria barne.

Hiztegia kontsultatu eta familiartekoa izateak odol berekotasuna duela ezaugarri nagusitzat esaten du. Eta zorionez, zure odol berekoa ez den inorekin, eta zure genero berekoa ez den inorekin, familia bat osatu nahi izanez gero, elizak magia egin eta ezkontzaren bitartez odol bereko egiten zaitu bat-batean eta betirako, edo “eraikitako” familia horrek irauten duen bitarterako behintzat. Seme-alabak bai, hauek betirako izaten dira, edo ez?

Ahizparen senarra beraz, familia dut eta ahizpen semeak ere bai, odol kontuak kontu.

Hara!, inork iritzirik eskatu ez eta zertara datoz hauek famili kontuak argitzera, norekin oheratzea zilegi den edo ez esatera? Urtu bitzate dituzten urreak eta saldu kondoi fabriketako akzioak, eraikinak, aberastasun guztiak eta behingoz predikatzen dutena aplika dezatela, non aplikatu badute eta.

Inork pentsatuko du eliza barruan fededun guztiak ez direla pentsamendu eta jokaera berekoak, baina hauen ahotsa ez da inondik inora aditzen, punta puntako teknologia falta, aidanean.

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - **Nerea Zinkunegi** - Idoia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
Hurrengo alea: Urtarrilak 25. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 21.















# Aurten jarriko dira martxan konpost planta eta atez ateko zabor bilketa

**San Markos Mankomunitateak pasa den astean hiru eguneko bidaia antolatu zuen Bartzelona iparraldera eta Mallorkara. Inguru haietako hainbat herritan, atez ateko bilketa sistema edota konpost plantak martxan jarriak dituzte. Mankomunitateko eta Gipuzkoako beste hainbat txokoetako udal ordezkari, teknikari eta erraustegiaren aurkako plataformetako kideak bertan izan ziren. Uda baino lehen, Usurbilen konpost planta eta atez ateko bilketa sistema martxan jartzeko asmoa dago.**



ZABOR ORGANIKOAREN BILKETA UNEA, MALLORKAKO PUIGPUNYENT HERRIAN.

Azken urteetan, Herrialde Katalanetako 70 bat herrietan hiri hondakinen arazoari aurre egiteko zaborra beste modu batean tratatzeko ahalegina egin dute. Esperientziok martxan jartzeko, lan askoko bide luzea jorratu behar izan dute. Herritarren ohiturak aldatzea ez baita erraza, ezta hondakinen gaiari dagokionean ere.

Prozesu horretan, ezinbestekoa izan da, batetik, erakundeetan ordezkaritza duten alderdi politikoen arteko adostasuna. Legediak ere badu zerikusirik. Bertako araudiak hondakinen zati organikoa biltzea derrigortzen baitu. Bestetik, herritarrak hiri hondakinen gaian sentsibilizatzea ere giltzarria izan da. Eta horri lotuta, biztanleak esperientzia berritzaile hauetan zuzenean inplikaraztea. Alde horretatik herri horietan egin diren informazio kanpainek garrantzi handia izan dute. Neurri handi batean, kanpaina horiek garai bateko eta egungo hondakin bilketa eta tratamendu ereduen arteko zubi lana egin dute.

### Materia organikoa, balantza irauli duena

Esperientzia berritzaile hauek abian jarri dituzten herrietan diotenez, ekimen horien arrakasta herritarren inplikazioaren eskutik etorri da. Emaitzak azpimarragarriak dira. Lehen, birziklatze ontzien sistemarekin birziklatze-tasa oso baxua zen eta ez hori bakarrik. Baziren zaborra behar bezala bereiztu edo birziklatzen ez zutenak. Atez ateko sistema martxan jartzeak ordea, ohiturak aldatu beharra ekarri du. Hondakinak ondo bereizi eta organikoa dena, zaborraren zatirik handiena (%42 inguru), birziklatzea.

ARITZ GORRITI

## Sistema alternatiboak indartzean, erraustegi eta zabortegien beharra gutxitu egiten da

Udalerri horietan erabat aldatu da zaborrak biltzeko modua. Guretzat hain ezagunak diren ontziak desagertu dira kaleetatik. Aparkaleku arazo asko konpondu eta kale bazterrak garbiago izatearekin batera, hondakinak uzteko guneak lekuz aldatu dira. Lehen masiboki pilatzen ziren hainbat ontzien inguruan. Atez ateko sistema abian jartzearekin batera, langileek etxe, saltoki edota enpresa atarietan biltzen dute zaborra. Aldez aurretik adostutako egutegi bat dago. Horrek egun eta ordu zehatz bakoitzean etxe atarian zer hondakin mota utzi argitzen die herritarrei. Erakundeek banatutako ordutegiarekin batera, ontzi txiki marroi bat eta poltsa bana jasotzen dute herritarrek, hondakinak bertan utz ditzaten.

Haiek badakite, zer den erraustegi eta zabortegiekin elkar bizi beharra. Baina atez ateko bilketa sistemarekin eta konpost plantak irekitzearekin batera, oso modu azpimarragarrian jaitsi da, batera zein bestera garraiatu beharreko zabor kopurua. Eta ondorioz, baita zabor tona horiengatik herritarrek ordaindu beharreko tasak ere. Hondakinak gutxitu dira eta berrerabilpena asko hazi da. Konpost plantetan tratatutako hondakinak hainbat baratz eta lore tokietarako ongarri gisa baliatzen baitituzte.

## Imanol Azpiroz, San Markoseko ordezkaria eta udal zinegotzia

# "Zeharo aldatu behar dugu zaborra biltzeko modua"

**Oso garrantzitsutzat jotzen du San Markoseko ordezkari eta EAE-ANVko zinegotzi Imanol Azpirozek hiri hondakinen bilketa eta tratamendu alternatiboak ezagutzeko antolatu duten bidaia. Eredugarria baita, aurten, Usurbilen martxan jartzekoak baitira atez ateko bilketa sistema eta baita konpost gunea ere.**



IRUDIAN IMANOL AZPIROZ, KONPOSTA ESKUETAN DUELA.

**NOAUA! Zer moduzko esperientzia izan da?**

**Imanol Azpiroz.** Esperientzia ikaragarria izan da bertaratu garen 46 lagunontzat. Garrantzitsua izan da herri mugimenduetako kideak joan izana. Aldaketa kualitatiboa emateko kontzientziatzea baita garrantzitsuena, eta hor, benetako protagonistak herri mugimenduak dira.

**N. Emaitzak ikusgarriak izan dira.**

**I. A.** Haien lan potoloena, organikoa gaika biltzea izan da. Haiek ere hasieran utopikotzat jotzen zuten, baina olio mantxa bat bezala zabaltzen ari da Katalunian ere. Eta horren lekuko izan gara. Hori baita zabor kopuruaren zatirik handiena eta arazo gehien ematen duena. Gipuzkoan hori ez da biltzen eta horretan hasi beharra dugu. Horrekin batera, gainerako zatien birziklatze-maila ere ikaragarri igo da. Duela hamabost urte erraustegia jarri zuten gune haietan, eredu horrekin inora ez doazela ikusi dute.

**N. Ikusitakoa orain hona ekartzeko asmoa duzue?**

**I. A.** Herri mailan egin nahi dena, Mankomunitate eta Gipuzkoa mailan egin nahi da. San Markosen dugu guk ardura, baina guk egiten dugun hori besteei zabaltzea nahi genuke. Bakoitzak bere etxeetan zaborra gaika sailkatzeak duen garrantzia ikusteko. Gure eredua, zeharo alderantzizkoa da, zaborra ahalik eta gutxien sortzen saiatu behar dugu. Baina sortzen dugun zaborra bistaratu behar dugu. Jendeak konstziente izan behar du, zer sortzen dugun, herri mailan.

**EREDUA, KATALUNIAN**

"Katalunian, legez, 5.000 biztanletik gorako udalerriak behartuta daude zabor organikoa bereiztuta biltzera"

**N. Zer eredu inporta liteke?**

**I. A.** Puigpunyent herriko eredu bera da. Makina askoz handiagoak dira, baina prototipo bera da. Konpostatzea erraza da, zaborra ondo bilduta etortzen bada. Horregatik nioen bilketa inbertsio nagusia bezala hartu behar dela. Katalunian, legez 5000 biztanletik gorako udalerriak behartuta daude organikoa bereiztuta biltzera. Hori hemen ez dugu, ez delako komeni zaborraren pastel horri %42a kentzea. Europan ere, erraustegiak badira, baina han ere ikusi dute, eredu horrek geroz eta zabor gehiago sortzea dakarrela.

**N. Prozesua hemen nondik hasi?**

**I. A.** Informazio asko ekarri dugu. Haiek egindako lana, zati handi batean aprobetxa dezakegu. Momentu honetan, konpost gunea lotu nahi dugu eta martxan jarri atez atekoa abiarazterako. Artean, kanpaina indartsu batekin hasiko gara. Aurten egin nahi dugu. Geurea lehen herria izango da eta eredua izan behar du.

**N. Herritarrek zer aldaketa jasan ditzakete?**

**I. A.** Zeharo aldatu behar dugu zaborra biltzeko modua. Herritarra izango da, hori egitea gauzatuko duena. Esplikatuko da, zergatik, baina gero egin beharko da. Jendeak, ez dut inolako zalantzarik, oso ondo erantzungo du. Ziur nago, oso denbora gutxian aldaketa izugarria emango dugula.

**N. Erraustegiko lanak gertu dira?**

**I. A.** Haien planteamenduei buelta emateko, lehen aipatutako esperientzia batekin erakutsi beharko zaie. Mediatikoki ere ikusten da, gure bidaia telebistan atera denean jakinarazi dute erraustegirako bidea nondik joango den. Hori `kontraofentsiba´ bat da, esateko "lasai, erraustegia egin egingo da". Nik esango diet, "lasai, erraustegia ez duzue egingo eta". Erraustegia gelditzea posible da, geure esku dago.

ARITZ GORRITI

## Unai Agirre, Zubieta Lantzeneko kidea

# “Ez dira esperientzia pilotuak, duela urte asko daude martxan”

**Mankomunitateak pasa den asterako antolatu zuen bidaian, Usurbilgo ordezkaritza bat izan zen. San Markoseko ordezkari eta EAE-ANV-ko zinegotzi Imanol Azpirozekin batera, “Usurbil Bizirik” plataformako kide Ainhoa Arrospide, “Zubieta Lantzen”eko partaide Unai Agirre eta Villabonako udaleko langile Iker Arrastoa. Bidaiatik bueltatzean, NOAUA!k haien inpresioak bildu nahi izan ditu.**



USURBILGO ORDEZKARITZA MALLORKAKO PUIGPUNYENT HERRIKO KONPOST PLANTAN.

“Alternatibak badaudelako, indar gehiagoz esan behar diogu erraustegiari ezetz”, adierazi du Arrospidek bidaiatik itzultzean.

Mankomunitateko ordezkariek hiri hondakinen arazoari aurre egiteko esperientzia berriok, lehenbizi, Usurbilen martxan jartzeko asmoa berretsi zuten bidaian. Lehenengoa izateak, eredugarri izan beharra ekarriko du izan direnen esanetan. “Argi izan behar dugu. Bakoitzak bere zaborraren ardura hartu behar du”, gogorarazi du Agirrek.

### Hausnarketa bultzatzea

Zaborra ontzietan uzten dugun unetik ez dugu ikusten nora doan, non pilatzen den, zenbat sortzen dugun... Hondakinekin zer gertatzen den alegia. Prozesu hori guztia ikusgarri egiteak, herritarren iritzia aldatuko luke, Arrastoaren hitzetan. “Jendea orduan barne hausnarketa egiten hasiko da”, adierazi du.

Herritarrak gogoetara bultzatzeko, atez ateko bilketa sistema martxan jarri duten herri horietako guztietako giltzarrietako bat, sentsibilizazio kanpaina izan da. Bertan izan diren herritarrek ere Usurbilen gauza bera egin beharra dagoela azpimarratzen dute. “Herritarrei arazoa zein den, zerk sortzen duen eta nola saihestu daitekeen azaldu behar zaie”, gogorarazi du Arrastoak.

### Herria, eragile

Horregatik, errausketaren aurka eta alternatiben alde lanean ari diren eragileak bildu eta kanpaina diseinatu beharko litzateke Arrospideren esanetan, herritarrei deialdi ireki bat eginez. “Herriak izan behar du honen bultzatzailea”, adierazi du. Ekimen berriak martxan jartzerako, beharrezkotzat jotzen du herritarrak ziurtasun osoz kontzientziatuta hastea.

Gipuzkoako hiriburuko eta Aldundiko ordezkaritzarik ez da bertan izan. Gaiari buruz izan dezaketen iritzia alde batera utzita, Arrastoaren esanetan, “beste ikuspuntuak ezagutzera joan zitezkeen”. Haiek aukera ederra galdu dute Agirreren hitzetan.

### Puigpunyent, eredugarri

Bisitatu diren herrien artean, Mallorkako Puigpunyent-eko eredua azpimarragarriena. “Hasi eta buka gehien landuta duena da”, adierazi du Arrospidek. Eredu horretan herritarrek izan duten parte hartzea azpimarratzen du “Zubieta Lantzen”eko kideak. “Ez dira esperientzia pilotuak. Duela urteetatik martxan daude”, gaineratu du Agirrek. Bere ustez, “Usurbilerako zer behar den ikusi eta hona moldatu beharko litzateke”.





# Atez ateko zabor bilketa sistemaren lau esperientzia

**Herrialde Katalanetako 70 bat udalerritako biztanleei, atez ateko bilketa sistema edota jasotakoa konpost gunera garraitzea, jada ezaguna zaie. Hemen, adibide batzuk.**




ATEZ ATEKO ZABOR BILKETA OHIKOA DA KATALUNIAKO HERRI ASKOTAN.

## Puigpunyent

Mallorcako Tramontana mendilerroaren magalean kokatua dago 1.200 biztanle dituen herria. Ondoan, 300 biztanleko Galilea herrixka du. Hondakinak biltzetik hasi, tratatu eta berrerabilpeneraino doan zikloa herrian bertan osatzen dute. Aldez aurretik finkatutako egutegi bati erantzunez, atez ate biltzen dituzte hiri hondakinak eta jasotakoa herrian bertan kokatutako konposta gunera garraiatzen dute. Instalazio horren ondoan uzten dute bereizitako zabor guztia. Eragileen asmoa, herritarrak, sortzen duten hondakinez jabetzea da. Horretarako, zaborra haien begi bistan jartzea baino gauza hoberik ez.

> **PUIGPUNYENT**
>
> "Lau urteren buruan, birziklagarria den hondakin kopurua %19tik ia %70era igo da"

Proiektua jaio zenetik herritarrak izan dira hondakinen kudeaketan egin beharreko aldaketen protagonista nagusiak. "Herriko Agenda 21" delakoan biltzen ziren zonalde ezberdinetako biztanleak eta udal ordezkariak. 2001etik egin dituzten inbertsio guztiak bilgune horretan kontsultatuak izan dira; hala nola, zer hiri hondakin bildu, horiek jasotzeko egutegia zehaztu edota informazio kanpainak nolakoa izan behar zuen ere eztabaidatu zuten, astero antolatzen zituzten bilera irekietan.

Udalak bere aldetik ekitaldi horiek antolatzeko baliabideak jartzen zituen. Talde ekologisten laguntza ere izan zuten. Birziklatzearen kultura indartzea helburu zuen sentsibilizazio kanpaina giltzarria izan da. Bi datu aipagarri. Lau urteren buruan, birziklagarria den hondakin kopurua %19tik ia %70era igo da. 50.000 eurotik 20.000 euroko prebisiora jaitsi dute errausteginko gastua.

Hasierako konfiantza falta gaindituta, herritarrek ekimenarekin bat egin dute eta egun, proiektuaren hobekuntza fasean murgilduta daude. Puigpunyenteko esperientzia ezaguna da, bere mugetatik kanpo zenbait lekutan eredugarritzat jo izan baitute.

## Argentona

11.600 biztanleko herria dugu Bartzelona ipar mendebaldean kokatua dagoen herria. Herritarren hiru laurdenak herri kaxkoan bizi dira. Gainerakoak urbanizazioetan. Biztanleriaren banaketa horrek hondakinak kudeatzeko modua baldintzatu du. Eredu mistoa dute bertan. Atez ateko sistema baliatzen dute erdigunerako. Urbanizazioetan, kostu handiak direla eta, ontzietan jasotzen dituzte hiri hondakinak.

> **ARGENTONA**
>
> "Atez ateko sistemari esker, birziklatze maila %50-70 artekoa da gaur egun. Lehen, %10ekoa zen"

2001ean abian jarri zuten proiektua, baina bi urte beranduago eman ziren aurrerapauso handienak. Auzo eta eskoletan egindako bilerekin edota informazio gune bat irekitzearekin hasi zuten sentsibilizazio kanpaina. Hori guztia, 2004ko ekainaren 15erako prest izateko. Egun horretan, kalean ziren berrehundik gora zabor ontzi kendu eta atez ateko bilketa abian jarri zuten. Sistema berrira ego-

kitu ezin zutenentzat ere, zaborra uzteko bost “emergentzia gune” egokitu ziren. Aldaketekin herritar batzuk erabat ados ez, eta manifestaldiren bat antolatu zuten. Baina denborarekin aurka zirenen jarrera ere baretu da. Datuak horren erakusgarri. Birziklatu ezin zitekeen maila %83koa zen 2003an. Egun, %49ra jaitsi da portzentaia hori. Atez ateko sistemari esker, birziklatze maila %50-70 artekoa da. Lehen, %10ekoa.

## Canet de Mar eta Sant Feliu de Codines

“Gutxiago, gehiago da”. Hori da 14.000 biztanle dituen herri honetan, martxan jarri zuten kontzientziazio kanpainaren leloa. Kanpaina horren barruan, herritarrekin bilkurak burutu eta haien ekarpenak jaso zituzten udal ordezkariek; hala nola, bilketa egunak gehitzea. Kale estuak dituztela eta, garai bateko ontzien sistemak aparkatzeko arazoak edota herritarren kexak eragiten zituzten. Inork etxe azpian zabor ontzirik ez zuen izan nahi.

2005eko maiatzean, hasieran abenturatzat definitzen zutenari, zaborrak atez ate biltzeari ekin zioten. Hemen ere, hasieran herritar batzuek aurkakotasuna erakutsi zuten, zaborra nahi zuten unean ezin zutelako utzi.

**SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK**

“Kontzientziazioa bultzatu eta okerrak egiten zituzten herritarrekin bildu izan dira udal ordezkariak”

Horregatik, kontzientziazioa bultzatu eta okerrak egiten zituzten herritarrekin bildu izan dira udal ordezkariak. Behin eta berriz, zabor poltsa behar bezala uzten ez zutenei, jakinarazpen etiketa bat jarri izan diete poltsetan.

Ondorioak, honakoak: %10-15etik %65-70era igaro da birziklapen tasa. Argi diote: “Emaitzak ikusita, ahaleginak merezi du”.

ARITZ GORRITI

## Abiatu ostean, hobetzen

Aipatutako herri guztietan hiri hondakinen kudeaketak jasandako eraldaketa prozesua ez da horretan amaitzen. Kasu askotan, orain hobekuntza fasean dira. Diren akatsak zuzentzeko ahaleginetan murgilduta daude. Hain zuzen, esate baterako, hasieran, biztanleriaren zati batek sistema berriaren aurkakotasuna erakutsi zuen. Horrekin batera, batzuk ontziak ez orduetan edota material desegokiarekin uzten zituzten etxe atarietan. Horren aurrean, udaletatik informazio kanpainaren jarraipena edota neurri praktikoak hartu izan dituzte eta hala jarraituko dute. Beti ere malgutasuna erakutsiz, zabor poltsa gaizki uzten dutenak okerrak zuzentzera bideratu edota hondakin berrerabilien kalitatea hobetzea dira, haien erronka nagusietako batzuk.

### Herritarron inplikazioa

Herritar bakoitza dagokion lana ondo egitera behartuta dago, jada, ez baitago anonimotasunik norberak sortzen dituen zaborretan, ezta horren guztiaren sailkapenean ere.

## Uda honetarako, Usurbilen

San Markos Mankomunitateak antolatutako hiru eguneko bidaian ikusitakoa hemen aplikatzeko asmoa dago. Hala, uda baino lehen, atez ateko bilketa sistema martxan jarri nahi da Usurbilen. Horrekin batera, konpost planta ere zabalduko da. Euskal Herri mailan horrelako esperientzia bat abiaraziko duen lehen herria izango da.

## Funtsezkoak dira informazio kanpainak

Atez ateko sistema oso batekin elkarbizitzen hasiberriak dira Sant Feliukoak. Beira biltzeko ontzia izan ezik, gainerakoak pasa den azaroaren 19an kendu eta bi “emergentzia gune” jarri zituzten. Edozein kasutan, lehen urratsak 2004an hasi ziren ematen. Garai hartan, saltoki eta etxeetan sortzen ziren hondakinen zati bat atez ate biltzen hasi baitziren. Baina zati organikoan, hari ez zegozkion hondakinen tasa %7tik %8,5era igo zen. Herritarrek zaborra ez baitzuten behar bezala bereizten. Egoera horri informazio kanpaina batekin erantzun zioten. Une honetan, azken hilabeteetako pausoak baloratzen ari dira.




ONTZI HAUEK GARAI BATEKOAK ORDEZKATUKO DITUZTE.

# Carlos Jimenez

## “Nire denbora librea argazkigintzari eskaintzen diot”

**Berandu deskubritu du argazkiaren mundua. Baina gaur egun, bere afizio handiena da. Azken urteotan egin dituen argazki esanguratsuenak erakutsi dizkigu. Horietako batzuk jaso ditugu orriotan. “Gezurra badirudi ere, Interneteko argazkigintza foroetan asko ikasi dut”, adierazi digu Carlos Jimenezek.**



IRUNGOA DA JAIOTZEZ, BAINA AZKEN URTEAK USURBILEN EGIN DITU CARLOS JIMENEZEK.

**NOAUA! Argazkirako afizioa nondik datorkizu?**

**Carlos Jimenez.** Lehen, bidaietan eta, anaiaren kamara analogikoa eramaten nuen. Beti esaten nuen, denborarekin argazkigintza landu nahiko nuke. Duela 4-5 urte, ordea, Donostiako argazkilari bat ezagutu nuen. Berak animatu ninduen. Argazki digitalaren mundua azkarra da, aukera asko eskaintzen ditu eta merkea da. Kamara txiki bat erosi nuen eta horrela hasi nintzen. Gutxinaka, afizio honek erabat harrapatu egin ninduen arte. Gaur egun, oso ondo pasatzen dut argazkiak ateratzen.

**N. Ikastarorik egin al duzu noizbait?**

**C. J.** Gezurra badirudi ere, Interneteko argazkigintza foroetan asko ikasi dut. Liburuak ere erosten ditut, batez ere, argazkilarien argazki-liburuak. Besteek egiten dutena ikusiz asko ikasten da.

**N. Iaz, Kirolgik antolatutako lehiaketan, Amador Granado txirrindulari usurbildarrari eginiko erretratu batekin saritua izan zinen. Bestelako saririk ere jaso duzu, ezta?**

**C. J.** 2005ean, webgune batek antolatu zuen lehiaketa irabazi nuen, Igeldoko argazki batekin. El Diario Vascoko lehiaketa batean ere, lehen saria irabazi zuen, “David eta Goliath” argazkiarekin (alboko orrialdean da ikusgai).

2006an, Bidasoako La Bahia aldizkarian antolatu zuten lehiaketa irabazi nuen “Oianleku” argazkiarekin.

2007an, Cristina Enea eta Kirolgiko lehiaketetan hirugarren geratu nintzen. Gaztela-Leongo lehiaketa batean ere, finalera iritsi nintzen. Berria egunkariak udan antolatu zuen argazki lehiaketan, finalera iritsi nintzen.

Dena den, lehiaketek asko baldintzatzen dute zure lana. Epaimahaian pentsatzen hasten zara eta, horregatik, batzutan ez da hain erosoa izaten.

**N. Azkenik, zer esango zenioke argazkiaren munduan murgildu nahi duen bati?**

**C. J.** Afizio merkea dela esango nuke. Kamera digital onak gero eta merkeago daude. Ordenadore bat behar da, gainontzean, ez da baliabide handirik behar.

IMANOL UBEDA



URTARRILAREN LEHENEAN ATERA ZUEN USURBILGO ERRETRATU HAU. GOIZEAN GOIZ ATERATA DAGO.



2005. urtean atera zuen argazki hau, "David eta goliath" izenarekin bataiatu zuena. Lan honekin "El Diario Vascoko" irakurleen lehen saria jaso zuen. Pasaian ateratako irudia da.



Zumaiako San Telmo, Itzurun hondartzatik ateratako irudia.



Udarregi baserria. Dena den, Koloretan indar gehiago du.

# Itxaropenez beteriko elikagaiak Saharara

**Saharako Herriarekiko Elkartasunerako Euskal Elkarteak 'Piztu itxaropena' ekimena hasi du. Errefuxiatuen kanpalekuetarako elikagaiak eta osasun gaiak biltzen ari da. Dian, Aliproxen, Aginagako Eizan, Aritzeta dendan eta Udarregi ikastolan edukiontziak jarri dituzte. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako saltoki eta eskola askotan bezalaxe.**



ALIPROXEN ETA DIAN, SALTOKIEN ATARIAN DAUDE JANARIAK UZTEKO KARROTXOAK. AGINAGAKO EIZAN, ARITZETA DENDAN ETA UDARREGI IKASTOLAN ERE BADIRA.

Bildutakoa hara eman behar da gero. Aurreko urteetan bezala, garraiorako kamioiak ere erosiko dira. Horretarako udalen, Eusko Jaurlaritzaren eta hainbat enpresaren laguntza jasotzea espero dute.

**ALJERIATIK BARRENA**

> "Elikagaiak Oraneraino (Aljeria) eramaten dituzte itsasontziz. Handik errefuxiatuen kanpalekura, 2.000 kilometroko bidea egin eta gero"

Ibilgailu horiek kanpalekuetara iritsitakoan, bertan geldituko dira, kanpalekuetara heltzen den giza laguntzaren banaketan lagungarri direlako. Karabana honen sustatzaileen esanetan, gidari guztiak boluntarioak dira. Alacantera (Herrialde Katalanak) joango dira, eta handik bueltan etorriko dira.

### Fronte Polisarioaren bitartez banatzen dira elikagaiak

Elikagaiak, ondoren, itsasontzi batean sartu eta Oraneraino (Aljeria) eramaten dituzte. Handik, Fronte Polisarioaren zaintzapean, desertuko kanpalekuetara eramaten dituzte, Tindufera, 2.000 kilometroko bidea egin eta gero.

Fronte Polisarioaren Hornidura Batzordearen bitartez egiten da banaketa Tindoufeko (Aljeria) errefuxiatu guztien artean. Janariak familia edota erakunde bakoitzak ezarritako kuota baten arabera banatzen dira.

## Arroza, atuna oliotan, azukrea, lentejak eta konpresak

Iazko karabanak arrakasta handia izan zuen (300 tona bildu ziren Hego Euskal Herrian; 2006an, 250 tona). Kanpaina honen bitartez, premiazko janariak bidaliko zaizkie saharar errefuxiatuei. Euskal herrietan biltzen diren janariak (azukrea, dilistak, arroza eta atuna oliotan) eta garbitasun gaiak (konpresak) biltzeaz aparte, guztia karabanan garraiatzeko bigarren eskuko kamioiak erostea aurreikusi da; azken hau euskal erakundeek egindako ekarpenei esker egingo da, batez ere, udalek emandako dirulaguntzei esker.

Janaria edo garbitasun gaiak emateaz aparte, diru ekarpenak egiteko kontu korronte bat ere zabaldu da Euskadiko Kutxan. Hauxe da kontu zenbakia:

3035 0080 94 0800054177.





# Lore eta Ikatz etorri zitzaizkigun ikastolara bisitan

Kaixo! Ikusi al zenituzten gabonetan Sutegiko kristaletan jarrita zeuden marrazki polit haiek? Ba, guk eginak ziren.

Olentzero gure etxeetara etorri baino lehen, bere lagun Lore eta Ikatz etorri zitzaizkigun ikastolara. Paper txuri handi-handiak ekarri zizkiguten eta guk han marrazkiak egin genituen. Eskutitz erraldoiak ziren!

Santo Tomasetan kantatzera atera ginenean, Lore etorri zen bizikletan eta gure eskutitz erraldoiak jaso zituen eta Ikatz bide osoan kantatu eta kantatu ibili zen.



Asko gustatu zitzaigun guri bisitatzera etortzea!

**HHko ikasleak**

## Hezkuntza Mahaia lehen aldiz bilduko da aste honetan

Haur Eskolaren etorkizuna erabakitzeko, irtenbide adostu baten aldeko apustua egin zuen Udalak. Hezkuntza Mahaia iragarri zen eta mahai hori aste honetan bilduko da lehen aldiz. Urtarrilaren 17ko bilerara deituta daudenak hauek dira: udal ordezkariak, Haur Eskola eta Udarregi Ikastolako ordezkariak eta gurasoen ordezkaritza. Hala osatuko da Hezkuntza Mahaia. Lehen bilkura, esan bezala, ostegun honetan izango da, arratsaldeko 17:00etan udaletxean bertan.

# Santuenea Elkarteak antolatu zuen Jaiotza Lehiaketak arrakasta handia izan zuen

Santuenea Elkarteak ekitaldi ugari antolatu zituen gabonetan. Jaiotza Lehiaketan, esate baterako, gaztetxo askok hartu zuten parte. Lehen saria Garaxi eta Nagore Andres Moto ahizpentzat izan zen. 100 euro eta "oleoan" pintatzeko kutxatxo bana jaso zuten. Bigarren saria, Oihana eta Xabi Ibarra Balseda anai-arrebentzat izan zen. 50eur o eta "oleoan" pintatzeko kutxatxoa. Hirugarren saria Eneko Toledok eraman zuen, 50 euroko saria.



Garaxi Eta Nagore Andres Moto jaiotza honekin nagusitu ziren.



Oihana Eta Xabi Ibarra Balseda izan ziren bigarren.



Eneko Toledo Zabalak jaso zuen hirugarren saria.







## Hitz-gezidunak



| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Sakon aztertuak / Ikerketa egilea | | Modua / Izkina | | Kanpora-tuta / Nafarroako herria | | Aiarakoa / Musika nota | | Una, neka |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | Hiltzaileak / Zati bi | | | | | | | | |
| * IRUDIAN / Oiartzun-goa | | Erdi, hitz elkarketan / Arauen multzoak | | | | Her. hizk., zer / Uranioa | | | Nori atzizkia / Röntgen | | |
| | | | | | | | | | | | Erregeen ikurra |
| Denbora unitatea / Arabako herria | | | | | | Jainko egiptoarra / Bokala | | | Arkuaren erdian / Bokala | | |
| | | | | | Urte sasoi / Jaunta-gailua | | | | | | |
| Istu / Eduki | | | Suari dario / Naizen hau | | | Urrea / Zintzo | | | Ez eme / Argona | | |
| | | | | Harrapa ezak! / Kontso-nantea | | | Tantaloa / 1 | | | Oxigenoa / Kontso-nantea | |
| Hego Frantziako lurralde batekoa | | | | | | | | | | | |

* Zein da Usurbilgo aisia taldearen izena?

**Soluzioa:** 17. orrian.

## ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Asko dugu esateko. Baina zure laguntza ere premiazkoa da.

## Bazkide egin zaitez!

Noaua

36 euro urte osorako

Izena: ______
1.Abizena: ______
2.Abizena: ______
Helbidea: ______
Herria: ______
Telefonoa: ______
E-posta: ______
Kontu korrontea: ______

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

# Judo taldea nagusi

**Usurbil Judo Taldeko senior mailako kideek emaitza onak lortu zituzten igandean ospatu zen Aragoi, Nafarroa, Errioxa eta Euskadiko judoka onenek jokatzen duten Iparraldeko sektorean. Bertan ziren 10 judoketatik 9 datorren urtarrilaren 26an Madrilen jokatuko den Espainiako Txapelketan izango dira, baita federazioaren bidez sailkapen zuzena lortu duen Iker Lizarribar ere.**

Iruñeko Mendilorri trinketean izan zuten hitzordua pasa den igandean. Euskadiko Txapelketan lehen bi postuak eskuratutako senior mailako judoketatik gehienak herriko judo taldekoak ziren, eta ohikoa den bezala ez zuten hutsik egin. Ibai Peña judokaren esanetan azken urteetako iparraldeko sektoreetatik gogorrena izan da aurtengoa. “Parekotasun handia zegoen parte-hartzaileen artean eta borrokaldi gogorrak ikusi ahal izan ziren bertan”.

Hala ere, guztira 10 izango dira 2008ko senior mailako Espainiako judo txapelketan parte hartuko duten herriko judokak, horietatik bederatzik igandean lehen edo bigarren postuak eskuratuta bertan izateko txartela lortu baitzuten. Gizonezkoei dagokionez, urrezko domina eskuratu zuten Aitzol Arrospidek (- 73 Kg) eta Mikel Pongak (+ 100 Kg). Zilarrezko domina eskuratu zutenak, berriz, hauexek izan ziren: Andoni Aizpurua (-60 Kg), Ibai Peña (-66 Kg), Xabier Urkizu (-73 Kg) eta Egoitz Mora.



AITZOL ARROSPIDEK URREZKO DOMINA ESKURATU ZUEN.

Hauekin batera, Iker Lizarribar ere Espainiako Judo Txapelketan izango da.

Emakumeek ere lan txukuna egin zuten. Urrezko dominarekin itzuli ziren etxera Nerea Sanz (-48 Kg) eta Maria Jose Sardón (+78 Kg) eta zilarrezkoarekin konformatu behar izan zuen Sara Quijanok (-63 Kg).

Bestalde, Tolosako Usabal kiroldegian 17 urtez azpiko ranking-a ospatu zen pasa den larunbatean eta bertan izan ziren Usurbil Judo Taldeko bi ordezkarik otsailaren 9 eta 10ean ospatuko den “Open Nacional” delakoan parte hartzeko aukera izango dute. Maialen Zubeldia eta Andrea Arruabarrena izango dira bertan.

JOSU ARANBERRI

## 1. Erregional mailakoak Haranen

Erregional mailako futbol taldeak Harane futbol zelaian jokatuko du asteburu honetan. Larunbatean, arratsaldeko 16.00etan hasita, Astigarragako Mundarro liderraren aurka jokatuko du Iker Dorronsorok zuzendutako taldeak. Lezon jokatutako azken neurketa 2-1 galdu ondoren hiru puntuak eskuratu nahiko dituzte multzoko orain arteko talde onenaren aurka. Bestalde, 1. kadete mailako taldeak Kopa txapelketako etxeko lehen neurketa jokatuko du Haranen Intxurreren aurka.

## Usurbil K.E. - Zarautz, Oiardon

Usurbil Kirol Elkarteko sei eskubaloi taldeetatik hiruk Oiardo kiroldegian jokatuko dute asteburu honetan. 1. Territorial mailako taldeak Amenabar Zarautz liderra izango du aurrez aurre. Pasa den asteburuan irabazi ostean, garaipena lortu beharko du Jose Lorenzo “Manzano”k zuzendutako taldeak, goiko postuetara iritsi nahi badu behintzat. 2. Territorial mailako eta mutilen jubenil mailako taldeek, berriz, Aloña Mendiren aurka jokatuko dute Oiardo kiroldegian.

# Pilota elkartea, berriz ere Berria txapelketatik kanpo

Usurbilgo Pilota Elkartea Berria txapelketatik kanpo gelditu da lehenengo kanporaketan. Aurten ere ezinezkoa izan da aurrera egitea, nahiz eta inoiz baino gertuago izan zuten helburu hori pasa den igandean Hernaniko pilotalekuan. Kadete eta jubenil mailako ordezkariek beren neurketak irabazi ostean, senior mailako pilotariek gutxienez 17 tanto egin behar zituzten azken norgehiagokan, baina 11 tanto lortu ostean 55-60 galdu zuten usurbildarrek Añorgaren aurka. Izan ere, kanporaketa irabazteko ez dira garaipenak kontuan hartzen, hiru bikoteek lortzen duten tanto kopurua baizik.

Kadete mailan 22 eta 20 irabazi zuten Xabier Santxo eta Astigarragako Jokin Santxezek Loidi eta Maizaren aurka. Jubenil mailan ere garaipena eskuratu zuten herriko ordezkariek. Imanol Esnaola aginagarra eta Jon Ander Albisu ataundarra 22 eta 18 nagusitu ziren eta jaialdiko azken partidarako sei tantoko aldearekin iritsi zen herriko pilota elkartea. Hala ere, Enrike Huizi eta Asier Katalinak 22 eta



11 galdu ondoren, txapelketatik kanpo gelditu zen Usurbilgo Pilota Elkartea.

# Autobus Ordutegia

## Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

| Donostia | Urbil | Usurbil | Orio | Zarautz |
|---|---|---|---|---|
| 07.40 | >> | 08.05 | 08.15 | 08.25 |
| [illegible] | >> | [illegible] | [illegible] | |
| 08.40 | >> | 09.05 | 09.15 | 09.25 |
| 09.10 | 09.30 | 09.35 | 09.45 | |
| 09.40 | >> | 10.05 | 10.15 | 10.25 |
| 10.40 | >> | 11.05 | 11.15 | 11.25 |
| 11.40 | >> | 12.05 | 12.15 | 12.25 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] | |
| 12.40 | >> | 13.05 | 13.15 | 13.25 |
| 13.10 | 13.30 | 13.35 | 13.45 | |
| 13.40 | >> | 14.05 | 14.15 | 14.25 |
| 14.10 | 14.30 | 14.35 | 14.45 | |
| 14.40 | >> | 15.05 | 15.15 | 15.25 |
| 15.10 | 15.30 | 15.35 | 15.45 | |
| 15.40 | >> | 16.05 | 16.15 | 16.25 |
| 16.40 | >> | 17.05 | 17.15 | 17.25 |
| 17.40 | >> | 18.05 | 18.15 | 18.25 |
| 18.10 | 18.30 | 18.35 | 18.45 | |
| 18.40 | >> | 19.05 | 19.15 | 19.25 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] | |
| 19.40 | >> | 20.05 | 20.15 | 20.25 |
| 20.15 | 20.35 | 20.40 | 20.50 | 21.00 |
| 21.00 | 21.20 | 21.25 | 21.35 | 21.45 |
| 22.15 | 22.35 | 22.40 | 22.50 | 23.05 |

[illegible] Alaia joaten da

| Zarautz | Orio | Usurbil | Urbil | Donostia |
|---|---|---|---|---|
| 06.45 | 06.55 | 07.05 | >> | 07.30 |
| 07.15 | 07.25 | 07.35 | >> | 08.00 |
| 07.45 | 07.55 | 08.05 | >> | 08.30 |
| 08.15 | 08.25 | 08.35 | >> | 09.00 |
| 08.45 | 08.55 | 09.05 | >> | 09.30 |
| | [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 09.45 | 09.55 | 10.05 | >> | 10.30 |
| | 10.30 | 10.40 | 10.45 | 11.10 |
| 10.45 | 10.55 | 11.05 | >> | 11.30 |
| 11.45 | 11.55 | 12.05 | >> | 12.30 |
| 12.45 | 12.55 | 13.05 | >> | 13.30 |
| | [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 13.45 | 13.55 | 14.05 | >> | 14.30 |
| | 14.30 | 14.40 | 14.45 | 15.10 |
| 14.45 | 14.55 | 15.05 | >> | 15.30 |
| | [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 15.45 | 15.55 | 16.05 | >> | 16.30 |
| | 16.30 | 16.40 | 16.45 | 17.10 |
| 16.45 | 16.55 | 17.05 | >> | 17.30 |
| 17.45 | 17.55 | 18.05 | >> | 18.30 |
| 18.45 | 18.55 | 19.05 | >> | 19.30 |
| | 19.30 | 19.40 | 19.45 | 20.10 |
| 19.45 | 19.55 | 20.05 | >> | 20.30 |
| 20.45 | 20.55 | 21.05 | 21.10 | 21.30 |
| 21.15 | 21.25 | 21.35 | 21.40 | 22.00 |

[illegible] Alatik dator

## Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

| Donostia | Urbil | Usurbil | Orio | Zarautz |
|---|---|---|---|---|
| 08.00 | 08.20 | 08.25 | 08.35 | 08.45 |
| 09.00 | 09.20 | 09.25 | 09.35 | 09.45 |
| 10.00 | 10.20 | 10.25 | 10.35 | 10.45 |
| 11.00 | 11.20 | 11.25 | 11.35 | 11.45 |
| 12.00 | 12.20 | 12.25 | 12.35 | 12.45 |
| 13.00 | 13.20 | 13.25 | 13.35 | 13.45 |
| 14.00 | 14.20 | 14.25 | 14.35 | 14.45 |
| 15.00 | 15.20 | 15.25 | 15.35 | 15.45 |
| 16.00 | 16.20 | 16.25 | 16.35 | 16.45 |
| 17.00 | 17.20 | 17.25 | 17.35 | 17.45 |
| 18.00 | 18.20 | 18.25 | 18.35 | 18.45 |
| 19.00 | 19.20 | 19.25 | 19.35 | 19.45 |
| 20.00 | 20.20 | 20.25 | 20.35 | 20.45 |
| 21.00 | 21.20 | 21.25 | 21.35 | 21.45 |
| 22.00 | 22.20 | 22.25 | 22.35 | 22.45 |
| 22.30 | 22.50 | 22.55 | 23.05 | 23.15 |
| **LARUNBAT GAUETAN** | | | | |
| 00.00 | >> | 00.25 | 00.35 | 00.45 |
| 01.00* | >> | 01.25* | 01.35* | 01.45* |
| 02.00 | >> | 02.25 | 02.35 | 02.45 |
| 04.00 | >> | 04.25 | 04.35 | 04.45 |
| 05.00* | >> | 05.25* | 05.35* | 05.45* |
| 06.00 | >> | 06.25 | 06.35 | 06.45 |

| Zarautz | Orio | Usurbil | Urbil | Donostia |
|---|---|---|---|---|
| 06.45 | 06.55 | 07.05 | 07.10 | 07.30 |
| 07.45 | 07.55 | 08.05 | 08.15 | 08.40 |
| 08.45 | 08.55 | 09.05 | 09.15 | 09.40 |
| 09.45 | 09.55 | 10.05 | 10.15 | 10.40 |
| 10.45 | 10.55 | 11.05 | 11.15 | 11.40 |
| 11.45 | 11.55 | 12.05 | 12.15 | 12.40 |
| 12.45 | 12.55 | 13.05 | 13.15 | 13.40 |
| 13.45 | 13.55 | 14.05 | 14.15 | 14.40 |
| 14.45 | 14.55 | 15.05 | 15.15 | 15.40 |
| 15.45 | 15.55 | 16.05 | 16.15 | 16.40 |
| 16.45 | 16.55 | 17.05 | 17.15 | 17.40 |
| 17.45 | 17.55 | 18.05 | 18.15 | 18.40 |
| 18.45 | 18.55 | 19.05 | 19.15 | 19.40 |
| 19.45 | 19.55 | 20.05 | 20.15 | 20.40 |
| 20.45 | 20.55 | 21.05 | 21.15 | 21.40 |
| 21.45 | 21.55 | 22.05 | 22.15 | 22.40 |
| **LARUNBAT GAUETAN** | | | | |
| 23.15 | 23.25 | 23.35 | >> | 00.00 |
| 00.15* | 00.25* | 00.35* | >> | 01.00* |
| 01.15 | 01.25 | 01.35 | >> | 02.00 |
| 02.15* | 02.25* | 02.35* | >> | 03.00* |
| 03.15* | 03.25* | 03.35* | >> | 04.00* |
| 04.15* | 04.25* | 04.35* | >> | 05.00* |
| 05.15 | 05.25 | 05.35 | >> | 06.00 |

[illegible]

# Tren Ordutegia

| Zarautz | Orio | Usurbil | Donostia |
|---|---|---|---|
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 08.08 | 08.15 | 08.24 | 08.39 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 09.08 | 09.15 | 09.24 | 09.39 |
| 10.08 | 10.15 | 10.24 | 10.39 |
| 11.08 | 11.15 | 11.24 | 11.39 |
| 12.08 | 12.15 | 12.24 | 12.39 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 13.08 | 13.15 | 13.24 | 13.39 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 14.08 | 14.15 | 14.24 | 14.39 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 15.08 | 15.15 | 15.24 | 15.39 |
| 15.38 | 15.45 | 15.54 | 16.09 |
| 16.08 | 16.15 | 16.24 | 16.39 |
| 16.38 | 16.45 | 16.54 | 17.09 |
| 17.08 | 17.15 | 17.24 | 17.39 |
| 17.38 | 17.45 | 17.54 | 18.09 |
| 18.08 | 18.15 | 18.24 | 18.39 |
| 18.38 | 18.45 | 18.54 | 19.09 |
| 19.08 | 19.15 | 19.24 | 19.39 |
| 19.38 | 19.45 | 19.54 | 20.09 |
| 20.08 | 20.15 | 20.24 | 20.39 |
| 21.08 | 21.15 | 21.24 | 21.39 |
| 22.08 | 22.15 | 22.24 | 22.39 |
| 22.38 | 22.45 | 22.54 | 23.09 |

| Donostia | Usurbil | Orio | Zarautz |
|---|---|---|---|
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 07.17 | 07.33 | 07.44 | 07.50 |
| 07.47 | 08.03 | 08.14 | 08.20 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 08.47 | 09.03 | 09.14 | 09.20 |
| 09.47 | 10.03 | 10.14 | 10.20 |
| 10.47 | 11.03 | 11.14 | 11.20 |
| 11.47 | 12.03 | 12.14 | 12.20 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 12.47 | 13.03 | 13.14 | 13.20 |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 13.47 | 14.03 | 14.14 | 14.20 |
| 14.17 | 14.33 | 14.44 | 14.50 |
| 14.47 | 15.03 | 15.14 | 15.20 |
| 15.17 | 15.33 | 15.44 | 15.50 |
| 15.47 | 16.03 | 16.14 | 16.20 |
| 16.17 | 16.33 | 16.44 | 16.50 |
| 16.47 | 17.03 | 17.14 | 17.20 |
| 17.17 | 17.33 | 17.44 | 17.50 |
| 17.47 | 18.03 | 18.14 | 18.20 |
| 18.17 | 18.33 | 18.44 | 18.50 |
| 18.47 | 19.03 | 19.14 | 19.20 |
| 19.17 | 19.33 | 19.44 | 19.50 |
| 19.47 | 20.03 | 20.14 | 20.20 |
| 20.47 | 21.03 | 21.14 | 21.20 |
| 21.47 | 22.03 | 22.14 | 22.20 |

00.00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenetik Igandera eta JAIETAN
00 Udan bakarrik 08/06/23-08/09/07

Bezeroen arretarako bulegoa ✆ 902 54 32 10 www.euskotren.es atcliente@euskotren.es

## Eguneko goardiako farmaziak

**Urtarrilak 17, osteguna**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Urtarrilak 18, ostirala**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Urtarrilak 19, larunbata**
Oa, Kontseju Zarra, 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Urtarrilak 20, igandea**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Urtarrilak 21, astelehena**
Urbistondo, San Frantzisko, 1, Lasarte

**Urtarrilak 22, asteartea**
Orue, Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte

**Urtarrilak 23, asteazkena**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Urtarrilak 24, osteguna**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Urtarrilak 25, ostirala**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Urtarrilak 26, larunbata**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1

**Urtarrilak 27, igandea**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

***GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ***
***Correa Farmazia (22:00-09:00),***
*Perkaiztegi kalea, 8 Hernani 943 33 60 22*
*Usurbilen, larunbatetan, soilik eguerdira arte*

## Zubieta-Donostia TST autobusak

**ASTEGUNETAN**
**Zubieta-Donostia**
7:55*/ 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

**Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* /9:00 / 12:45(T)
13:45* /18:45

**LARUNBATETAN**
**Zubieta-Donostia**
8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

**Donostia-Zubieta**
**(Gipuzkoa plazatik)**
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

**JAI EGUNETAN**
**Zubieta-Donostia**
11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

**Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da
*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

## Agenda !!

**Urtarrilak 14, 21, 28**
Makilatzen ikasteko tailerra Haur Eskolan, arratsaldeko 18:30ean. Antolatzailea: “Oinarriak Eraikiz” Guraso Elkartea. Irakaslea: Eli Zenborain estetizista. Matrikula: 10 euro. Informazioa: 943 374 061.

**Urtarrilak 25, ostirala**
- Santa Agedako entsegua Zubietako Eskola Txikian. 19:00etan.
- “Ogia eta arrosak” filma, 22:30ean Sutegin. Zuzendaria: Ken Loach. Sarrera, egunean bertan 2 euro. Antolatzailea: Usurbilgo udala.

## Yoga, masaje eta sabel dantza ikastaroak

Guraso Eskolak, orain EINE izenarekin bataiatua izan denak, ikastaro berriak iragarri ditu:

- Yoga eta masaje ikastaroetan oraindik bada apuntatzeko tokia.
- Sabel dantzako bigarren taldea osatzeko, aldiz, hiru pertsona falta dira. Talde hau astelehenetan bildu ohi da, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Informazio gehiago honako telefono zenbakian: 615006535 (Ana).

## Soluzioa !!



| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ✪ | I | ✪ | E | ✪ | K | ✪ | A | ✪ |
| | | | I | K | E | R | L | A | R | I | A |
| | | | ✪ | E | R | A | I | L | E | A | K |
| ✪ | Z | ✪ | E | R | T | ✪ | Z | E | ✪ | R | I |
| O | I | A | R | T | Z | U | A | R | R | A | ✪ |
| ✪ | O | R | D | U | A | ✪ | R | A | ✪ | R | K |
| A | R | A | I | A | ✪ | U | R | T | A | R | O |
| ✪ | T | U | ✪ | K | E | ✪ | A | U | ✪ | A | R |
| I | Z | A | N | ✪ | T | O | ✪ | T | A | ✪ | O |
| ✪ | A | K | I | T | A | N | I | A | R | R | A |

Soluzioa: Ziortza

# Hiru ibilgailu erre ziren astelehen gauan Puntapaxeko lurpeko garaje batean

Ezuste ederra hartu zuten Puntapax kaleko bizilagunek aurreko astelehen gauan. Sutea Puntapax kalea 3n dagoen lurpeko garaje batean piztu zen. Aparkalekua bi pisukoa da, eta bertako garaje itxi baten barruan piztu zen sutea. Ezbeharraren ondorioz, bi auto eta motor bat erre ziren.

Suhiltzaileek eta Herrizaingo Sailak adierazi zutenez, gaueko 00:15ak aldera piztu zen sutea, baina zergatik eta nola ez dago argi oraindik.

Hiru ibilgailuak ez ezik, garaje barruan zeuden beste zenbait gauza ere kaltetu zituen suteak. Suhiltzaileek goizeko 3:30ean amaitu zituzten garbiketa lanak.



BERTAKO GARAJE ITXI BATEAN PIZTU ZEN SUTEA.

## Independentziaren aldeko banderolak atera ditu EAE-ANVk

Usurbilgo EAE-ANVk dei egin nahi die herritarrei ilegalizazioaren aurkako barrikada bat altxatzeko. Honakoan, tresna berri baten bitartez: "Guk, independentzia" banderola. EAE-ANVk etxeetako balkoiak eta leihoak independentziaz estali nahi ditu, "PSOE eta PPri mezu garbi bat helerazteko: herri honek ez dituela ilegalizazio gehiago onartzen eta aukera independentista ezingo duzuela desagerrarazi. EAE-ANV erasotua dagoen honetan eta independentzia zaleon ordezkaritza eta ahotsa ito nahi duten honetan, ezinbestekoa da herritarrak babesa eta atxikimendua adieraztea".

## Logotipo berri bila dabil Alkartasuna Kooperatiba

Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba sortu zela 100 urte beteko dira aurten. Hori dela eta, logotipo berri baten bila dabiltza. Lehiaketan parte hartu nahi duenak bere lana kooperatiba bertara eraman edo postontzi elektronikora bidali behar du otsailaren 15a baino lehen. Helbidea: alkartasuna@usurbil.com

Saritutako logotipoaren egileak, Alkartasuna kooperatiban bertan edozein gai eskuratzeko 300 euroko bonoa jasoko du.

Informazio gehiago kooperatiban, posta elektronikora idatziz edota 943 36 11 14 telefonora deituz.






### ETXEBIZITZA

Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoena onean. Agentziarik ez. 600645629
- Gela bat alokatzen da, pisu konpartituan. Kontaktuan jartzeko: 635 208 551.
-Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta trasteroa. Berritua. 53.000.000 pezeta (318.000 euro). 696 693 710.
- Gela bat alokatzen da gizonezko langile bati. 250 euro/hilabetean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin eta arropen garbiketa barne. 687348223.
-Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro . Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 265.000 euro. 678084020.
- Hiru logelatako etxe baten bila gabiltza Usurbilen. Agentziarik ez. 616064059.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 33 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- 3 logeletako etxe bat salgai, kaxkoan. Igogailua, ganbara eta balkoiduna. 655 72 06 66.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. Telefono zenbakia: 943 36 02 45 / 661 702 708.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trasteroarekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil. 687 650 066 (Maria).

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Wolksvagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Land Rover 4.6 (lp) todoterrenoa salgai. 8 urte. 455.000 km. Oso ondo zainduta. Extra asko. Ruben. Tfno. 609408401.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaintzak

-Neska euskaldun (ahal bada) baten bila bagiltza ume bat zaintzeko astean bi goizetan eta zenbait arratsaldetan. 635715142.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabiltza. 943366710.

#### Lan-eskaerak

- Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 636934237.
- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Goizez edo arratsaldez lan egiteko prest. Deitu: 679 79 61 01.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da, egunero lauzpabost ordu lan egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 687348223.
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporrak, ospakizunak, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakia: 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

-Erregeek telebista modernoa ekarri badizue eta zaharra botatzeko asmorik badaukazu, neurekin kontaktuan jarri: bila joango nintzake: 675 71 72 67. Diru pixka bat ordaintzeko prest nago ere.
-Naranja eta gorri koloreko bi raketa galdu ditugu; bat handia, bestea txikia. Aurkitu baduzu, deitu: 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzatako beltz batekin. Aurkitu badituzu eskertuko dugu deitzea: 685 72 56 81.
-Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitxoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 110 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Mercedes Vito Mixta 112 CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa... Dena hornitua, 610 431 999.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Snow egiteko tabla bat fijazioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



**Zorionak Enara!**
Familia osoaren partez eta lagunen partez zorionak eta ondo ondo pasa!




**Zorionak Jon Ander eta Kerman!**
Lehenak abenduaren 27an egin zituen urteak eta Kermanek urtarrilaren 17an beteko ditu urteak. Zorionak eta muxu potolo bana etxekoen partez!



**Zorionak Malen eta Unax!**
Urtarrilaren 17an egingo dituzue 4 urte. Marrubi eta txokolatezko muxu potolo bana etxeko guztien partez. Zorionak!



**Zorionak Enara!**
Kaixo polita zenbat urte bete dituzu? 8... Handia egin zea. Beno neska, prestatu tarta goxua... Zorionak eta muxu handi bat!

### HERIOTZAK



**Mari Carmen Iztueta Jauregi**
Urtarrilaren 9an hil zen 75 urte zituela. Kaleberri.



**Jose Miguel Furundarena Begiristain.** Urtarrilaren 13an hil zen 90 urterekin. Aginaga.



**Zorionak Iñaki!**
Gure etxeko txikiak urteak egingo ditu hilaren 23an. Zorionak, ondo pasa eta muxu bana etxekoen partez!


INAUTERIAK'08
otsailak 2 larunbata
gaia XOMORRONK
Antolatzailea:
Noaua!
Babeslea:

# TXOTX!!



















Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noaua.com